

TTAKUN (H)ERRENKA

Mundua baino ez

M

undua baino zerbait gehiago aldatzen dela-ko beti” diozu uneren batean Jose Luis, eta nire materialismo

DANI BLANCO



Ixne Apaolaza



Padrón



Sarasola

praktikoaz barre egiten duen lagun bati –bere misterioarekiko atxikimenduaz egiten dut nik–, esaldiarekin zer ulertzen zuen galdetu nion. Ez dut jarriko zer erantzun zidan, topikoa da. Gauza askotan sinesten duen jendea ezagutzen dut, baita Jainkoan ere; beste bat unibertsoaz eta horrela aritu zitzaidan, kosmosa bezalako hitzekin, entzun orduko hizkuntza arrotzen didatenak. Hau dena diot ohartu naizelako mundua dela erabiltzen dudana unitate handiena, eta halakoetan zabarkeriaren bat egin dudanaren sentsazioz geratzen naiz. Ez naiz unibertsoaz pentsatzeko gai; gehienez orain, zaborraz hitz egiteko –erortzen ari omen zaiguna–, eta zaborrak mundu egiten du ukitzen duen gutzia. Gurea da.

Lanera aste honetan itzuli naiz, bi asteren ondoren, eta jaikitze orduan bertan hasten da errealitatea nire baitan gainezka egiten, fikzio dosi handia behar da eguneroko jardura honi zentzua emateko, antzerkiak niretzat ere zentzuren bat baduela sinesteko. Mundua oso azkar hasten da beste inorena izaten. Eta ondoan esertzen zaizunarekiko errealtateak jasaten du nekearen gorabeheren pisua, minutu bat bestearen atzetik mahaitik altxa ezin, gaur agian “esker-rak” pentsatuz, hitz azaleko zenbait behar nuelako, beti daude gaiak, baina bihar beharbada presentziak hilabete gehiago irauten badu kontrola galduko dudala sinestuta –eta asteburua iristen da–. Eta irratia entzuteko kaskoetatik Libiako ipuinaren azken datuak iristen zaizkit, dagoeneko narrazio bila dabiltzanak, behin garaipena ospatu osteko bonbardaketek ez baitigute

sosegurik ematen horixe baino nahi ez dugun klase ertainari.

Libian gehiago bizi dute gure mundua euren baino, eta beharbada han behar lukete gure beldurrek ere, hainbeste seinalatzen dizkiguten honetan; diru-zorro lapurrei, hogei euro baino gehiago kendu ezingo dida-

tenean; poltsa osoa lapurtzeari, iPhone garestirik ez baitut, segapoto zaharkitu bat baino... Amarena zenean dagoeneko bigarren eskuko zen kotxe zaildura sartu zitzaizkigun pasa den astean, eta eskuetako krema eta komuneko papera eraman zuten, bertan lo egin eta zigarroak erretzen aritu ziren. Besterik ez. Norena da orduan lapurrarekiko beldurra?

Eta nire neurritan ez den mundu batean zehar, eta ezer aldatzerik baduten zalantza egiten dudana hitzez inguratuz (ze narrazio salbatzen du edozein europar Libiako sarraskitik?), besteen bizitzak eraikitzen aritearen sentsazioz, harremanen bat-batekotasunean galdurik, urrundu nahi badut, irakurri egiten dut, gezurrak gehiengotan, hurbildu egiten nauena, egiak ordenatzen dituztelako, nire neurriko eginez, eta batez ere, noizean behin konplizeren bat topatzen dudana eremua delako; urruntzen naudelako gerturatzen nau, ito aurretik. Eta hori, zaborra bezala, mundua da, gurea, gurekin desagertuko dena. Munduak, nire buruak, jasagarria izateari utziko lioke fikzio horiek gabe, munduaz ari diren gezur horiek guztiak, *kit* indibidualak, burmuin bakar batentzat eskuragarri; eta ez ihesbideak ematen dizkidatelako, egotea posible egiten didatelako baino, gero eta gehiago ulertzearen bidez, edo hurrengo galderak kitzikatuz. Agian literatura zinismo ariketa bat baino ez da dagoeneko. Edo agian hainbeste gezurrek noizbait errealtatean guztiz ezingai egingo nau. ■



Lanera aste honetan itzuli naiz,
bi asteren ondoren, eta jaikitze orduan
bertan hasten da errealitatea nire baitan
gainezka egiten, fikzio dosi handia behar da
eguneroko jardura honi zentzua emateko,
antzerkiak niretzat ere zentzuren bat
baduela sinesteko